

Pako Sodupe

IDAZLEA

## Abertzaleak eta euskara (J. M. Odriozola)

**H**ala zioen Nemesio Etxanizek 1951n, *Bizina* artikuluan: “Onenbeste erdal-burruka ondoren, erri asko erori dira. Azkoitik euskaldun dirau oraindik, Jaunari eskerrak. Baña ari zaizkio azpi-jorran”. Oso kontziente zen espainolek zer-nolako borroka egin zuten euskara euskaldunen ezpainetatik kenarazi eta espainola ezartzeko batere begiramenik gabe. Jakina, esango duzu, irakurle, diktadura garaia zen; eta hizpidean zaude, baina halere axola handikoa iruditzen zait gogoratzea —neure buruari ere— euskaldun ezpainetan euskarak bizi duen egoera kaxkarra borroka eta azpi-jorra horien ondorio (ere) badela.

Egun, txitean-pitean egiten dugu topo euskaraz soilik haurrekin egin nahi duten euskaldunekin, euskara ere praktika horren eraginez, haurrekin hitz egiteko bestetarako ez dutenak, haur-hizkuntza, eta iruditzen zaigu jai daukagula, barruan dugula harra barrua usteltzen ari zaiguna, eta euskal praktika baino aurreratua sumatzen dugun kontzientzia politikoa gorabehera, gure nazioaren porrota ezin saihestua dugula.

Politikari abertzaleek zer egin dute, aspalditik datorren erdal borroka eta azpi-jorren aurka azken hogeita hamar urteetan, Hego Euskal Herrian bereziki? Erakundeak sortzeari, lurraldetasunari eman diote garrantzia, eta ez euskara nagusiarazteko borro-



DANI BLANCO

kari, berak nagusiki, eta aldeak alde, erdararen inposizio-kate horretan kokaturik ari baitira politikagintza espainolez lantzen, hondarrak hondarrean, Francoren diktadurapean bezalatsu, hizkuntza-borroka askatasunaren biharamunerako utzirik, irakaskuntzak mirariak egin arte edo, eta horrela Irlandaren eredurantz urratsak egiten. Euskalgintza eta aberrigintza uztaurik ez eramatekotan, bietan porrota!

Euskal erakundeetan nagusi direnek behin eta berriz adierazten digute espainola ere gurea dela, eta bi hizkuntzak baliatu behar ditugula gureak direnez gero, espainol totalitarioek hainbeste konplexu erenez gure baitan sarrarazia, eta N. Etxanizek “bide ertzeko belarra”ren metaforapean agertzen ziguna, publikoki hiltzera kondenatua. Frankismoaren pean deslegitimatua zeuden espainiar hizkuntza, kultura eta identitatea aber-tzaletasunak legitimatu egiten ditu, eta nazio euskaldunaren ezaugarri nagusiak deslegitimatua, nazio menderatzailearen identitate-balioak erabiliz. Adierazgarria: hogeita hamar urteren ondotik euskara jakin beharrik ez hautskundeetara aurkezteko.

Nazio euskaldunaren gainbehera iraultzea, bi borroken arteko simetria, merezi digun iraultza bakarra, bizi nahi baitugu euskaldun gisa. Bat nator Joxe Manuel Odriozolarekin! ■



Frankismoaren pean

deslegitimatua zeuden espainiar

hizkuntza, kultura eta identitatea

abertzaletasunak legitimatu ditu,

eta nazio euskaldunaren

ezaugarri nagusiak deslegitimatua



TXANDAN

Andoni Mujika

## Plastilinazko bihotza



Badirudi erakunde motak (elkar-teak, enpresak, eragileak...) beste irizpide batetik ere sailka daitetzkeela: gizarte aldaketarako (hobekuntzarako) bokazio sakona dutenak eta ez dutenak. Erakunde bihoztunak mundurako klabeak diren erronketan protagonista izango dira eta beren iparra hor egongo da. Euren eguneroko jardueratik harago doan proiektu zabal horren mapan kokatuko dira. Eta gizateriari mesede egiteaz gain, euren lanari zentzua aurkituko diote. Baina badago beste erakunde mota bat gizatasunaren azaleko makilajeen geratuko dena. Hala da; azken aspaldian tinte etikoz margotutako

helburu historiko nagusia (ia bakarra) bere horretan mantentzen du: dirua eta boterea. Enpresa kosmetiko honek bere langileriari eta gizarteari adieraziko die erakunde sentibera dela, pertsonen eta izadiaren etorkizunarekin kezkatuta dagoela. Baina bere bihotzak plastilinazkoa izaten jarraituko du.

Amaitzeko, metabolismo bi hauen arteko muga erraz detektatzeko nahikoa da begiratzea zein herrialdetan kokatzen den bata eta bestea: giza-oinaze eta ametsen mapan, edota aldiz, norberaren atlas partikular eta opakoan. ■

enpresa berri bat agertzen ari zaigu. Mozorrotutako organizazio mota honek bere